

Heriotzaren korridorean

Irati Iturritza Errea DBH 3. eta 4. kurtsoak 2. saria Iruñeko Iturrama BHI

Gaur da biziko dudan azken goiza. Gaur gauean hilko naute. Egia esan, ez nago seguru goiza denik, ez baitago argirik. Iluntasuna da nagusi oihuez, minez eta heriotzez betetako gelaxka honetan. Neure buruari galdetzen diot espetxean daramadan denboraz, baina ez dut lortzen ezer zehazten. Hemen, egun guztiak berdinak dira, gosea berdina da, hotza berdina da, eta edonon sumatzen den beldurra ere, berdina da egunero. Eta noski, heriotza ez da salbuespena. Egunero hainbat eta hainbat pertsona hiltzen dituzte hemen, baina hiltzaileentzat heriotza horiek guztiak berdinak dira, ez dago desberdintasunik duela aste bat erreguka ari zela hil zuten hamaika urteko mutilaren eta atzo hildako agurearen artean.

Nire inguruan negarka eta oihuka entzuten ditudan pertsona hauek ez dute legea bete, eta haiek hiltzea da presozairen helburu bakarra. Ez dago hausnartzeko denborarik, zigorra kasurako egokia dela erabaki, eta ahal den azkarren hil behar dira pertsona hauek guztiak.

Eta monotoniaz betetako kobazulo honetan, ni ez naiz inolako salbuespena. Gaur gauean uniformeaz betetako bi gizon aurreratuko zaizkit gelaxkara, eta lau beso sendok hartuko naute, indarrez, matxinatuko naizelakoan. Baina ez dut matxinatzeko asmorik, ez daukat horretarako indarrik ez gogorik. Trajez jantzitako gizon-emakume batzuek heriotza merezi dudala erabaki badute, garrasika eta kolpeka ez dut lortuko nire patua aldatzea. Lortu dezakedan gauza bakarra nire heriotza atzeratzea da, edo are okerrago, nire heriotza mingarria bilakatzea. Lehenbailehen amaitzea nahiago dut.

Mutil bat entzuten dut negar zotinka nire ondoan. Haur hau berria da, bere ahotsa ezezaguna baitzait. Seguruena hau izango da bere lehenengo eguna espetxean, eta beldurrez dardarka egongo da. Nork daki zer egin duen, baina jada horrek ez du inporta, haur honek ez du ezer egiterik. Gelaxka honetan badago, heriotzara kondenatu behar izan dute, hau baita hiltzera kondenatutako haurrak bizi diren tokia.

Baina, hemendik kanpoko pertsonentzat, gu ez gara haurrak. Egin duguna egin dugunez, kriminalak gara. Beste preso guztiak bezala. Eta beste preso guztiak bezala epaitzen gaituzte.

Nire ondoko haurrari erreparatzen diot berriro, eta hotzikara batek gorputza astintzen dit. Argirik ez badago ere, nire begiak jada iluntasunera ohitu dira, eta mutil horren begietara begiratuta, nire anaia etortzen zait gogora. Ez batak ez besteak ez dute hamabi urte baino gehiago edukiko, eta bien begietan beldurra ikus daiteke argi eta garbi.

Beldurra nire anaiaren begietan. Gure ama hil zenean bere begietan zegoen beldurra. Biak soroetatik etxerako bidean zetozela, amak gizakion bizitzarekin amaitzeko apropos jarritako lehegailu horietako bat zapaldu zuenean seguruenik izango zuen begirada. Amaren heriotzaren ondorengo urteetan ere, hainbat eta hainbat aldiz ikusi nuen begirada hura nire anaiaren begietan, familiarik gabe, inolako laguntzarik gabe, munduan bakarrik geundenean.

Nire ama hil ondoren, nola edo hala bizitzen jarraitu behar genuen, eta nire soroetako lanarekin ez zen nahikoa, beraz, nire anaiak zortzi urte zituela hiriko gizon batek lana eskaini ziola esanez etorri zitzaidanean, ezin izan nion ezetz esan. Anaia lanean hasi zenean, jatekoa ugariagoa bihurtu zen gure etxean, baina ohizkoagoak ziren beldurrez betetako begirada horiek ere. Edozein modutan, nik ere beldurra neukan, nahiz eta adoretzu agertzen saiatu, eta ez nuen gehiago jakin nahi izan.

Nire ondoko mutila lasaitu dela dirudi, dagoeneko ez du negarrik ez oihurik egiten, baina horrek ez du esan nahi ikaratuta ez dagoenik. Berarengana hurbildu eta besarkatu nahiko nuke, ezer egingo ez diotela zin egin, nik ez diedala utziko. Baina badakit alferrik dela, lehenago hemen egon diren haur guztiak bezalako amaiera izango duela, eta ez duela pena merezi beteko ez diren itxaropenik ematea.

Beharbada ondoan daukadan mutila ez da leporatu diotenaren erruduna. Hemengo haur asko bezala, beste pertsona batek egindako zerbaitengatik egon daiteke hemen. Baina gure bizitzaren norabidea erabakitzen duten gizon horiek errudun bat behar dute, eta kasu honetan, gu gara errudunak beraientzat, guk ordainduko dugu gertatukoarengatik.

Ni ere ez naiz heriotza ekarriko didan krimenaren egilea, baina prest nago pertsona horiek behar duten errudunaren paperean jartzeko, ez dut salatuko benetako erruduna. Ez dut nire anaia gaztea salatuko.

Azken finean, zuzenean ez bada ere, ni ere banaiz honen errudun. Bere garaian begiak irekitzeko ausardia eduki izan banu, egoera hau ez zatekeen sekula gertatuko. Baina begiak itxita mantendu nituen, nahi edo ez nahi ikusten nituen eta itsutzen ninduten argiekin ere, ez nuen begiak irekitzeko adorerik eduki.

Susmatzen nuen nire anaia ez zela legezko lanetan aritzen, botatzen zizkidan begiradez gain, hiriko gizonak ematen baitzion soldata gehiegizkoa baitzen bere adineko ume baten zerbitzuengatik. Baina, inoiz ez zitzaidan bururatu nire anaiak benetan egiten zuena, ez nuen egoera larria zela ikusi, beranduegi izan zen arte.

Duela pare bat hilabete izan zen nire amaieraren hasiera. Bi polizia gure etxe xumearen aurrean agertu zirenean, zerbait gaizki zihoala ulertu nuen. Polizia ez dator hiritik gurea bezalako herrixka txiki batera, benetako arrazoirik ez badago. Biok etxearen kanpoaldean janaria prestatzen geundela, gizonak aurreratu, nire anaiaren izena esan eta ezartzen zitzaion krimena azaldu zigutenean, nire buruko puzzlearen azken pieza bere lekuan kokatu zen. Eta, zalantzarik egin gabe, erruduna nintzela ziurtatu, haren ordetan altxatu, eta bi polizia horiekin joan nintzen, nire anaiari besarkada luze bat eman ondoren, jakin bainekien ez nuela berriro ikusiko.

Neure buruari esaten diot okerrean pasatu dela, erabakia hartuta dagoela, ez dagoela atzera bueltarik. Ez direla itzuliko nire epaiketaren egun luze eta astunak, eta garrantzitsuena, ez dudala berriro entzun behar izango nire anaiak hildako pertsonaren izena.

Hemen ez dago denbora kalkulatzeko modurik, egun batzuk konturatzerako bukatuak dira, eta beste batzuek ordea, amaigabeak dirudite, bukaerarik gabeko amesgaizto baten antzera. Baina gaur, azkenik, zorte pixka bat daukadala dirudi, uniformeaz jantzitako bi gizon ikusten baititut niregana etortzen. Lasai egon daitezke, ez dut borroka egingo, ez naiz defendatuko. Azkenean, gaua iritsi da, eta harekin batera, nire heriotza.